



**2011KO OTSAILAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako otsailaren hamazazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte eta Iñaki Saldaña Herrero.

Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2011ko urtarrilaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 20 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (47.813,60 €)takoa eta 2011 ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMO (85.730,81 €) onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- KIROLDEGIKO KANPOALDEAN ESKALATZEKO PARETA EGITE LANEN LEHEN ETA BAKARRA DEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Kiroldegiko kanpoaldean eskalatzeko pareta egite lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek, lanen lehen eta bakarra den obra-egiaztagiria luzatu dute. Obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HEMERETZI MILA BERREHUN ETA BERROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (19.240,73 €) da eta obra burutzen ari den enpresa Construcciones Artzamendi, S.A.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Kiroldegiko kanpoaldean eskalatzeko pareta egite lanen obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 08-011-006 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2011ko urtarrilaren 31tik bere borondatez.

Telealarma zerbitzua.-

- 11-12-003 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2011ko otsailaren 2an heriotzaga-tik.
- 11-12-004 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea. Telealarma zerbitzuaren kostua ondorengoa da: instalazioa 81,79 € eta mantenimendu gastuak urtean 87,14 €. Onu-radunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 da.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordetik egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

- Gerriko Ikerlan Beka.- 2010eko Gerriko Ikerlan Bekaren gastuen bigarren zatia ordaintzeko Goierriko Euskal Eskolari bi mila eta bostehun (2.500 €) euroko dirulaguntza ematea.
- 2010eko abenduaren 17, 18 eta 19ko Liburu Azoka.- 2010eko abenduaren 17, 18 eta 19ko Liburu Azoka jarduketagatik Gerriko Liburudendari azokako salmenten %15a gehi antolakuntza gastuetarako beste hirurehun euroren pareko dirulaguntza ematea, guztira bi mila bostehun eta hamalau euro eta hamaika zentimo (2.514,11 €).
- Lazkaotxiki Musika Eskolari.- 2011ko aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik lau mila eta ehun (4.100 €) euroko aurrerapena egitea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

